

Ezpalak

JON TORNER

Mikel Laboari omenaldi diskoa egin diote hainbat taldek



TXINAURRIAK. *Mikel Laboari Ikasitako Kantuak* lana kaleratu-ko du Bidehuts diskoetxeak abenduan. Kantari ezagunek Laboari egindako omenaldia dira CD bikoitza osatzen duten 19 kantak. Diskoan ondorengoek hartu dute parte: Berri Txarrak, Ruper Ordorika, Anari, Atom Rhumba, Audience, Lisabö, Inoren Ero Ni, Gora Japon, Ama Say, Amodio, Xabier Montoia, Hotel, Willis Drummond, Zura, Borrokan, Gabon Caligula eta Dilistak. Bidehuts-en webgunean (www.bidehuts.net) jada eska daiteke diskoa.

Transmedia eta 3D jardunaldia Donostian

ZINEMA Ikasleen Nazioarteko IX. Topaketaren baitan, Transmedia eta 3D jardunaldia egingo da Donostian hilaren 22an. Ikus-entzunezkoen esparruan sortzen ari diren joera berriak izango ditu ardatz, eta bi zatitan banatuko da. 3D zinemaren inguruko tailerra batetik, Príncipe zineman egingo dena, Manolo Gómez Santos Dygra Films-eko lehen-dakariaren parte-hartzearekin. Eta, bestetik, nazioarteko Transmedia jardunaldia: Lance Weilerren hitzaldia, Robert Figuerasen *Panzer Chocolate* proiektuaren aurkezpena eta Ian Ginn ekoizleak gidatutako eztabaida jasoko ditu. Arrasate kaleko Kutxaren aretoan egingo da Transmedia jardunaldia.

Marga Altolagirre aktorearen arte eszenikoen laborategia abian da jada. Donostian dago, Elosegi hiribidean. Haren helburua da “arte eszenikoen irakaskuntzaren inguruan Donostialdean eta Euskal Herri mailan dagoen hutsunea betetzea”. Antzerki eskolatik harago doa, edukiak sortu eta erakusteko asmoa baitu. Klaseak hasi diren arren, izena emateko epea hilaren bukaera arte luzatuko da.

Sigfrido Koch

‘Irudiaren poeta’ deituriko argazkilaria omentzeko helburuz, Koch familiako hamabi kideren 100 bat argazki bildu dira Donostiako Kutxa Boulevard aretoan.



SIGFRIDO KOCH (GUREGIPUZKOA.NET)

Harrapatutako uneak izeneko erakusketa urriaren 12ra arte izango da ikusgai.

Martin Ugalde ipuin lehiaketa jarri du abian Andoaingo Udalak. Hamar eta hamazazpi urte bitarteko Andoaingo, Adunako, Asteasuko, Amasa-Villabonako, Larraulgo eta Zizurkilgo gazteek har dezakete parte. Lanak urriaren 8 edo 13rako aurkeztu behar dira, bakoitzaren adinaren arabera.

Artium museoak Ipiña Bidaurrezaga bilduma pribatuko 54 lan jaso ditu bere gordailurako. Euskal artisten obrak dira guztiak. Txomin Badiola, Jon Mikel Euba, Elena Sainz, Dario Urzay eta Nestor Basterrearen artelanak daude, besteak beste.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Yorick Liburudendan edo
www.libreriayorick.com
eskura dezakezu

Argitaletxearen
azken argitalpena

Baba zango-horiak
Catherine Zambon
(Itzulpena Txomin Heguy)

argitalpena
editorial **Artezblai**



San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbao / Tel: 944 795 287 / www.libreriayorick.com / info@libreriayorick.com